

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4690

1727/2025 EBAZPENA, urriaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizioko sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, medikuaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak irailaren 26an emandako 415/2024 Epaia betez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 10eko 1216/2025 Ebazpenaren bidez, ebazpen hau aldatu zen: azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpena, zeinaren bidez onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPE-etako hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1775/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoak medikuaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 29ko 1725/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren lehiaketa-oposizioko sistemaren (Egonkortzeko EPEa) txanda ireki bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko medikuaren kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPE-etan deitutako hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez.

Bat etorriaz Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 10eko 1216/2025 Ebazpenaren laugarren eta bosgarren apartatuetan xedatutakoarekin, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizioko sistemaren eranskinen jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla medikuaren

kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek 5 egun baliioduneko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiek zita eskatu beharko dute lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatueta nazionalentzat.

Espainiako nazionalitatea ez duten eta parte hartzeko eskubidea duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute, bai eta, beste estatu bateko nazional batekin lotura badute, harekin ahaidetasun-lotura dutela eta haren kontura bizi direla edo haren kargura daudela egiaztatzen duten dokumentuak ere. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, non azken horrek adierazten duen ez dagoela ezkontidearengandik legez bananduta eta, hala badagokio, izangaia haren kontura bizi dela edo haren kargura dagoela.

– Elkargokide izatearen ziurtagiria, deialdiaren oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziiplina-espediente bidez izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako desgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako estatuari buruzko aitortpenaz gain, zinpeko adierazpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez daudela desgaituta edo egoera baliokidean, eta ez dutela diziplinazko zehapenik edo baliokiderik beren estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten dienik.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisiko egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa, eta, horrez gain, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dutela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

2025eko azaroaren 5a, asteazkena

Azaldutakoaren arabera lanpostuaz jabetzen diren izangaiak dagokion zerbitzu sanitarioetako erakundean hasi beharko dira lanean, eginbidea bete eta hurrengo egunean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

2025eko azaroaren 5a, asteazkena

ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA - EGONKORTZEA

DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA

FAKULTATIBO ESPEZIALISTA PEDIATRIA MEDIKUA - LMT

TXANDA IREKIA - LEHIAKETA-OPOSIZIOKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleituia	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9690**	Fernandez Bonet, Amaya	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Otxarkoagako Osasun Z.-Bilbao / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 10:00-17:00-Besterik gabe	2 2005-06-01
***5657**	Doval Alcalde, Iraia	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Larreagaburuko Osasun Z.-Bilbao / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Arratsaldez-Arratsaldez 13:00-20:00-Besterik gabe	2 2011-06-30
***0115**	Vadillo Alvarez, Irene	Uribeko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Mungia Osasun Z.-Mungia / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Arratsaldez-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Besterik gabe	2 2005-06-01
***7857**	Morientes Carbajo, Oihane	Bilbao-Basurtuko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Abusuko Osasun Z.-Bilbao / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Arratsaldez-Arratsaldez 13:00-20:00-Besterik gabe	2 2016-12-03
***4929**	Villate Castillo, Ane	Barrualde-Galdakao ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Gernika-Lumoko Osasun Z.-Gernika-Lumo / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Besterik gabe	2 2005-06-01
***5594**	Lejarzegi Anakabe, Elene	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Santurtzi-Kabiezko Osasun Z.-Santurtzi / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Arratsaldez-Arratsaldez 13:00-20:00-Besterik gabe	2 2011-06-01

2025eko azaroaren 5a, asteazkena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9504**	Lopez Vazquez, Nerea	Uribeko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Sopelako Osasun Z.-Sopela / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Arratsaldez-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Besterik gabe	2 2022-10-18
***8987**	Castañón Lasa, Leire	Arabako ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Gazalvide-Txagorritxuko Osasun Z.-Vitoria-Gasteiz / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 10:00-17:00-Besterik gabe	2 2011-06-30
***1995**	Sanchez Puentes, Juana Maria	Bidasoko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Hondarribiko Osasun Z.-Hondarribia / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2008-06-01
***6475**	Lekuona Serrano, Ainara	Bidasoko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Erdialdeko Osasun Z.-Irun / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2016-12-03
***9622**	Mesonero Cavia, Saray	Debagoieneko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Arrasateko Anbulatorioa-Arrasate/Mondragón / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin	2 2013-12-03
***5535**	Tarabini-Castellani Ciordia, Beatriz Maria	Debarreneko ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Eibariko Osasun Z.-Eibar / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 10:00-17:00-Besterik gabe	2 2005-06-01
***8209**	Bilbao Meseguer, Nerea	Arabako Errioxako ESI / Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Oiongo Osasun Z.-Oyón-Oion / Lehen Mailako Arretako unitateak-Pediatria-Pediatria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2 2012-12-31